

IKASTAROKO ARAUTEGIA:

1.- Ikastaroetan izen-ematea

Ikastaroetan izen-ematea era honetara ordaindu behar da:

Hilabeteko ikastaroak :

Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldegiko bulegoetan aurkeztu behar dira (e-maila: kirola@hernani.eus). Ordainketak txartelarekin eta helbideratu egin daitezke.

Iraupen luzeko ikastaroak:

Hiru hilabeteko ikastaroak:

Ordainketa bakarra: Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldegiko bulegoetan aurkeztu behar dira (e-maila : kirola@hernani.eus). Ordainketak txartelarekin ere egin daitezke.

Zatikako ordainketa: Ordainketa aurrezki kutxa edo banketxeren batean helbideratu beharko da eta ikastaroari dagokion kuota hiru zatitan ordainduko da, zati bakoitzean hilabete bati dagokion kopurua.

Gainerako ikastaroak (iraila-ekaina; urria-ekaina):

Iraupen luzeko ikastaroen kuotak modu hauetan ordain daitezke:

Ordainketa bakarra: Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldegiko bulegoetan aurkeztu behar dira (e-maila : kirola@hernani.eus). Ordainketak txartelarekin ere egin daitezke.

Izena behin jarduera hasita ematen denean. dagokion parte proportzionala ordainduko da, altaren dataren arabera. Lehen hilabeteko kuota kalkulatzeko, hilabete osotzat hartuko dira 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erditzat 16tik 31ra egindakoak.

Zatikako ordainketa: Ikastaro guztietarako, oro har, ikastaroen ordainketak aurrezki kutxa edo banketxeren batean helbideratu beharko dira, eta ikastaroak irauten duen hilabete kopuruaren adinako zatitan ordainduko dira kuotak.

Inskripzioa jarduera dagoeneko hasita dagoela egiten bada, lehen kuota gisa ordaindu beharreko kopurua alta-egunaren arabera finkatuko da, honela: hilaren 1etik 15era egindako inskripzioak hilabete osotzat hartuko dira eta hilaren 16tik 31ra artean egindakoak hilabete erditzat.

Iraupen luzeko ikastaroetan izena ematea, ordaintzeko aukeratu den bidea edozein izanda ere, ikastaro osorako dela ulertuko da; ondorioz, ordainketa-zati guztiak ordaindu behar dira, ikastarora joan ala ez kontuan izan gabe.

Ordaindu gabeko erreziboak: Zatiren bat ordaindu gabe geratzen bada hura kobratu ahal izateko espedientea hasiko da. Eta, horrekin batera, zorretan dagoen

bazkideak bazkide gisa dituen eskubide guztiak galduko ditu, hots, ezingo du ikastaroa egiten jarraitu eta ezingo ditu udalaren kirol instalazioen gainerako zerbitzuak erabili, ordaintzeko dagoen kuota edo kuotak ordaindu arte.

2.- Itzulketak - Bajak

Kiroldegiko abonua: Abonua indargabetzen denean, ez da dirurik itzuli edo konpentsatuko. Abonua indargabetzea Udal Kiroldegiaaren arrazoiz gertatu denean baino ez da itzuliko edo konpentsatuko ordaindutakoa.

Hilabeteko ikastaroak: Behin ikastaroa hasita ezin izango da baja eskatu eta dagokion dirua itzuli.

Izen-ematearen %100a itzuliko da baja eta itzulketak ikastaroaren hasiera baino lehen eskatzen denean, baldin eta istripuagatik edo gaixotasunagatik izan bada. Horretarako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Iraupen luzeko ikastaroak: Jarduera hasi eta bi astera ezin izango da eskatu ez bajarik, ez ordaindutako diru kopuruaren itzulketarik.

Hala eta guztiz ere, ikastaroetan izena eman dutenek, lehen aipatutako epea igaro eta urte bereko abenduaren 31 arte ikastaroan baja eskatu ahal izango dute idatziz, eta hori onetsia edo ezetsia izango da. Jarduera Fisikoa eta Kirol delegatuak erantzuna emango du ebazpenaren bidez, aurkeztutako arrazoiak baloratu eta gero. Data hori pasatuz gero ez da diru itzulketarik egingo.

Goian adierazitakoa hala izanda ere, baja eskaera bat jasotzen denean edo inskripzio kuoten itzulketak jasotzen denean, hutsik geratutako plaza besteren batek betetzeko aukerarik baldin badago, zuzenean onartu ahal izango da eskatutakoa, eskaeraren data kontuan hartu gabe, eta eskatzaileak ordainduko ditu ordezkioak ikastaroan matrikula egiten duen une zehatzera arteko kuota guztiak.

Udalak eskatzaileari eskatu ahal izango dio bere ustez beharrezkoa den dokumentazio guztia, baja eskatzearen arrazoiak justifikatzeko.

Ikastaro osoa edo zatia indargabetzea ikastaroa antolatu duenaren arrazoiz gertatzen bada, izena emateagatik ordaindutakoa ikastaroa eten denetik gelditzen den denboraren proportzioan itzuliko da.